Formatu txikiagoan, Laborategi aretoko programazioa **Isabel Azkarate. Arte eta parte** erakusketarekin abiatu zen; horrela, donostiar fotokazetariarenganako aitortpenarekin bat egin zuen museoak. Eta **Luis Martín-Santos. Askatasun garaia** erakusketarekin amaitu zen Laborategiko egitaraua, hiriarekin lotura estua zuen idazle eta psikiatra horren omenez.

Museoaren espazio horretan bertan, Kutxa Fundazioarekin batera garatutako Artea Abian egitasmoak euskal sorkuntza garaikideari zabaldu zizkion ateak. San Telmok bere historian zehar euskal arterako eta artistentzako erreferente gisa jokatu zuen paperari jarraitutasuna eman zion proiektu horrek. **Xare Álvarez**en **Makurtu** aurkeztu zen 2024an.

GURE PROIEKTUAK

Museo Bikoitza: Hinrich Sachsen lana urtebetez erakutsi ondoren, **Maddi Barbe**-ren instalazioa - **Harria eta poltsa**- inauguratu genuen azaroan, eta proiektuaren logikari jarraituz, ondorengo edizioan parte hartuko duten artista berriak izendatu zituen Barberrek: **Usue Arrieta** eta **Ainara Elgoibar**, dagoeneko lanean ari direnak.

Nabarmendutako obra: arte historikoa deritzon aretoan, Nabarmendutako Obra proiektua abiatu genuen. Proiektu honen bitartez, beste museo edo bildumetako obrak nabarmenduko ditugu, baita gure bildumakoak ere. Perla eraikineko proiektu arkitektonikoa, **María Paz Jiménez**en bi obra eta Prado Museokoa den Madrazoren Vilcheseko kontesa obrak ikusgai izan ondoren, urtea ixteko, museoak eskuratu eta zaharberritu duen **Nestor Martín Fernández de la Torre**-ren Kursaal kasinoko **Izenbururik gabe** obra egon zen ikusgai, antzinako Kasino Handian jartzeko sortua.

ERRONKAK

Museoaren *Erronkak* programazioaren ildoan, gai garrantzitsuen inguruan eztabaidatu zen, hala nola larrialdi klimatikoa, giza eskubideak eta feminismoa. Horrela, Donostiako Udalarekin eta Cristina Enea Fundazioarekin lankidetzan antolatutako *Agora K2050* zikloaren barruan, energiaren, trantsizio ekologikoaren eta iraultza digitalaren inguruan adituek esateko dutena entzuteko aukera egon zen.

Besteak beste osasunarekin, haren bilakaerarekin, giza eta animalia jakintzarekin, emozioekin eta elebitasunarekin lotutako alderdiak eztabaidatu zituzten **Garuna(k)** erakusketaren inguruan antolatutako zikloan, Jakiunde zientzia, arte eta letren akademiarekin lankidetzan antolatu zena; baita *24 Emakume zientzian, artean eta letretan* zikloan ere; ikusgarritasunik izan ez duten arren, gure gizartearen aurrerapenari ekarpen

En formato más pequeño, la programación de la sala Laboratorio arrancó con **Isabel Azkarate. Arte y parte**, una muestra con la que el museo se sumó al reconocimiento a la fotoperiodista donostiarra y concluyó con **Luis Martín-Santos. Tiempo de libertad**, homenaje a este escritor y psiquiatra de gran arraigo en la ciudad.

En este mismo espacio del museo, Artea Abian, proyecto desarrollado con Kutxa Fundazioa, dio cabida a la creación vasca contemporánea. Este proyecto dio continuidad al papel que San Telmo ha jugado a lo largo de su historia como museo referente para el arte vasco y para sus artistas. Este 2024 se presentó **Pliegue** de **Xare Álvarez**.

NUESTROS PROYECTOS

Museo Doble: Tras exhibir la obra de **Hinrich Sachsen** durante un año, en el mes de noviembre se inauguró la instalación **Harria eta poltsa** de la artista **Maddi Barber**. Siguiendo la lógica del proyecto, Barber fue la encargada de seleccionar a las nuevas artistas que participarán en la próxima edición: se trata de **Usue Arrieta** y **Ainara Elgoibar**, que ya están trabajando en su proyecto.

Obra Destacada: se dió comienzo al proyecto Obra Destacada en la sala de arte histórico. Mediante este proyecto, se pretende destacar obras tanto de otros museos y colecciones, como de nuestras propias colecciones. Después de exponer el proyecto arquitectónico del edificio de la Perla, dos obras de **María Paz Jiménez** y la obra de la condesa de Vilches del pintor **Madrazo** perteneciente al Museo del Prado. Para cerrar el año, el museo eligió como Obra Destacada el cuadro **Sin título** de **Néstor Martín Fernández de la Torre**, creada para ser instalada en el antiguo Gran Casino, la cual fue adquirida y restaurada por el propio Museo.

DESAFÍOS

En la línea de programación de *Desafíos* del museo se debatieron cuestiones tan relevantes como la emergencia climática, los derechos humanos y el feminismo, entre otros. Así, dentro del ciclo *Agora K2050* organizado en colaboración con el Ayuntamiento de San Sebastián y la Fundación Cristina Enea se tuvo la oportunidad de escuchar a expertos hablar sobre energía, transición ecológica y revolución digital.

Aspectos relacionados con el cerebro como la salud, su evolución, el conocimiento humano y animal, las emociones o el bilingüismo fueron debatidos en el ciclo organizado en torno a la exposición **Cerebro(s)** en colaboración con Jakiunde, Academia vasca de las artes, ciencias y letras, así como en el ciclo *24 Emakume, zientzia, arte eta letretan / 24 Mujeres en las ciencias, artes y letras*, dedicado a mujeres

handia egin dioten emakume akademikoei eskainitako zikloa izan zen azkeneko hori.

Halaber, Jakiunde akademiarekin eta Zas Zurrumurruek Aurkako Sarearekin lankidetzan, gaurkotasan handiko erronkak –hala nola demografia, zahartzea eta immigrazioa– aztertzeko ziklo bat egin zen.

Feminismoak leku garrantzitsua izan zuen Deustuko Unibertsitateko ARES ikerketa-programarekin (Analysing Antifeminist Resistances) lankidetzan antolatutako zikloan; hainbat gairen aztertu zituzten, adibidez, adostasuna edo feminismoaren aurkako erresistentziak eduki digitaletan.

Teknologia Kuantikoak zikloan, konputazio kuantikoaren inguruko oinarriko kontzeptuak eta teknologia horiek aplikazio nagusietako batzuetan izan lezaketen inpaktua izan zuten hizpide; Donostia International Physics Center (DIPC) zentroarekin lankidetzan antolatu zen ziklo hori, *Donostia, Zientzia Hiria* programaren edizio berri baten barruan.

Globernance Gobernantza Demokratikoaren Institutuarekin lankidetzan antolatutako *European Dialogues* ohiko zikloaren barruan, hainbat gai jorratu ziren: eskubideen Europa eta Europa munduko desordena geopolitikoaren aurrean, eta Europako mugen politiken gaia jorratu zuten Ankulegi jardunaldien barruan, eta gerra Europar Batasunetik ikusita, Galde elkartearekin lankidetzan.

Giza eskubideak programaren zati garrantzitsua dira eta, aurrean, Hagako Nazioarteko Justizia Auzitegiari buruzko hitzaldiaz gain, Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta Udalarekin kolaboratu zen, Irani eta eskubide eta askatasun unibertsalei buruzko hitzaldiak antolatzeko, baina gezurrez eta desinformazioz betetako mundu honetan informatuta egoteak duen garrantziari buruzko hitzaldiak ere.

Literaturak, emakume idazleen urteroko topaketarekin, Literaktum jaialdiarekin, liburuen aurkezpenekin eta psikoanalisiak osatu zuten urteko egitaraua, ikasleei zuzendutako Jakinmina programarekin batera.

ARGAZKI-LIBURUAK

Museoko liburutegi espezializatuaren ezaugarri bereizgarria **Gabriela Cendoya Bergareche Collection** argazki-liburu bilduma da, gaur egun 3.345 ale dituena, eta Estatu mailan espazio publiko eta doakoan dauden bildumetako garrantzitsuenetakoa da. Gero eta jende gehiago etortzen da bilduma kontsultatzera, banaka zein taldetan.

2024. urtean, nabarmentzekoa da hainbat ikastetxeren bisita jaso zuela bildumak; argazki-liburua lanerako objektu gisa txertatzeko erabiltzen dute bilduma, baita ikasleei, ikasgaiaren amaierako proiektu gisa, argazki-liburu bat egiteko erronka proposatzeko ere. Horixe da

académicas que, aunque invisibilizadas, han contribuido al avance de nuestra sociedad.

Asimismo, con Jakiunde y con Zas Red Vasca AntiRumores se celebró un ciclo para analizar retos tan presentes como la demografía, el envejecimiento y la inmigración.

El feminismo ocupó una parte importante con cuestiones como el consentimiento o las resistencias antifeministas en contenidos digitales en el ciclo organizado en colaboración con el programa de investigación ARES (Analysing Antifeminist Resistances) de la Universidad de Deusto.

Los conceptos básicos sobre los que gira la computación cuántica y el impacto que podrían llegar a tener estas tecnologías en algunas de las principales aplicaciones se abordó en el ciclo *Tecnologías Cuánticas*, organizado en colaboración con el Donostia International Physics Center (DIPC) en el marco de una nueva edición del programa Donostia, Zientzia Hiria.

Dentro del habitual ciclo *European Dialogues* en colaboración con Globernance, Instituto de Gobernanza Democrática, se debatió sobre la Europa de los derechos y Europa ante el desorden geopolítico mundial, así como las políticas de frontera europeas dentro de las Jornadas Ankulegi, o la guerra vista desde la Unión Europea en colaboración con la asociación Galde.

Los derechos humanos son una parte importante del programa y en este año además de la conferencia sobre la Corte Penal Internacional de la Haya (CPI), se colaboró con la Universidad del País Vasco y el Ayuntamiento en la organización de charlas sobre Irán y los derechos y libertades universales, o sobre la necesidad de estar informado en un mundo lleno de bulos y desinformación.

La literatura, con el encuentro anual de escritoras y Literaktum, las presentaciones de libros o el psicoanálisis completaron el año, junto al programa Jakinmina, destinado a los/as estudiantes.

FOTOLIBROS

La biblioteca especializada del museo tiene como característica diferencial la colección de fotolibros **Gabriela Cendoya Bergareche Collection**, actualmente de 3345 ejemplares, que es una de las más importantes del estado situada en un espacio de acceso público y gratuito. Cada vez es mayor el número de personas que se acercan a consultarla, tanto de manera individual como en grupos.

Durante el 2024, se puede destacar la visita de distintos centros de enseñanza que se sirven de esta colección para incorporar el fotolibro como objeto de trabajo e incluso para poner como reto a su alumnado la creación de uno como proyecto final de asignatura.

Mondragon Unibertsitatearen, Kunsthal Diseinu Eskolaren eta Black Kamera Eskolaren kasua; Bartzelonako El Observatori ikastetxeko ikasleak ere berriro etorri ziren asteburu batez unibertso honetan barneratzeko esperientzia bizi izatera.

Argazki-liburuari ikusgarritasun handiagoa emateko helburuarekin jarraituz, bilduma katalogatzen jarraitu genuen, Internet bidez ikusi ahal izan dadin, eta urteroko programazioari eutsi zitzaion, bilduman dauden artistak gonbidatuz, bai nazioarte eta Estatu mailan izen handikoak diren argazkilariak, bai tokiko esparruko pertsonak ere, baina ez horregatik erakargarritasun txikiagokoak: **Jon Uriarte, Ros Boisier, Bryan Schutmaat, Ricardo Cases, Nagore Legarreta, Jesús Uriarte**. Argazki-liburuaren edizioari buruzko bi tailer ere antolatu ziren, arlo honetako pertsona ospetsuen eskutik; alde batetik, **Jason Fulford** argazkilari estatubatuarra, eta **Magali Avezou** frantziarra, argazkigintzan eta arte bisualetan espezializatutako arte-kudeatzailea. Argazkilaritzaren munduan lan egiten duten erakundeekin lankidetzan aritzeko hurbilagoko harremanak ere landu zituen liburutegiak 2024an, hala nola Basque Dok Festival eta Getxo Photo jaialdiekin, biak Bizkaikoak, aipatutako egile estatubatuarrek museora ekartzeko aukera eman zuten sinergiak sortuz, hainbat jarduera egin zezaten, eta publiko berriak erakariz.

Halaber, liburutegia izan zen elkartzeko gunea Donostiako PhotoBook Klubaren 2023ko hainbat saiotan; sarri bisitatzen dute Museoaren bilduma klubeko kideek.

HAU

Aurten zazpigarrenez antolatu da **HAU Euskal Herriko objektu tradizionalen diseinu lehiaketa** Bitamine eta San Telmo Museoaren eskutik, eta hainbat lankidetzarekin: Mondragon Unibertsitatea, Aranzadi Zientzia Elkarte, EIDE Euskal Diseinuaren Elkarte eta IBILI Menaje enpresa. Lehiaketa honen xedea euskal kulturako objektu tradizional bat gaurkotzea da. Batetik, deialdiak gure tradizioaren inguruko ikerketa sustatzen du, usadioak eta ohiturak ezagutu eta berreskuratzeko; bestetik, objektu tradizionalak egokitu, berritu eta berrinterpretatzea bultzatzen du, diseinu garaikidearen begiradatik. Horrela, gure historiarekin lotura berriak sortzen dira, baita diseinu alorrean ikerketa-ildoak urratu eta ekintza-eremuak zabaltzeko ere. Deialdi honetan, gaztainak erretzeko tresnak berraztertzea proposatu da, eta 24 proiektu aurkeztu dituzte lehiaketan.

ATZOKOAK GAUR

Atzokoak gaur. Lanbide tradizionalak egitasmoak txokolategintza izan du ardatz aurten. Programa hau 2018an hasi zen, eta hainbat lanbide ezagutzen eta zabaltzen lagundu nahi du: teknikak eta lan egiteko moduak, erabilgarritasuna, lotutako ohiturak, horiek garatu zituzten pertsonak. Erakusketa iraunkorarekin

Es el caso de Mondragon Unibertsitatea, Escuela de Diseño Kunsthal y de Black Kamera Eskola; e incluso desde Barcelona, alumnado de El Observatori repitió un año más la experiencia de inmersión en este universo durante un fin de semana.

Siguiendo con el objetivo de dar mayor visibilidad al fotolibro, se continuó con la catalogación de la colección para que pueda visualizarse en internet y se mantuvo la programación anual invitando a artistas presentes en la colección, tanto fotógrafos de renombre internacional y nacional como otras personas de ámbito más local pero no por ello menos atractivas: **Jon Uriarte, Ros Boisier, Bryan Schutmaat, Ricardo Cases, Nagore Legarreta, Jesús Uriarte**. También se programaron dos talleres sobre edición de fotolibro de la mano de reconocidas personalidades de este ámbito como es el fotógrafo estadounidense **Jason Fulford** y la francesa **Magali Avezou**, gestora artística especializada en fotografía y artes visuales. La biblioteca también estrechó este año lazos de colaboración con entidades que trabajan en el mundo de la fotografía, como son el Basque Dok Festival y Getxo Photo, ambos en Bizkaia, creando sinergias que permitieron traer a los mencionados autores estadounidenses al museo para que desarrollaran diferentes actividades, así como atrayendo nuevos públicos.

Igualmente, este año la biblioteca fue lugar de reunión en varias sesiones del PhotoBook Club de San Sebastián, cuyos miembros visitan asiduamente la colección

HAU

En 2024, se organizó la séptima edición de **HAU: Concurso de diseño de objetos tradicionales de Euskal Herria**, de la mano de Bitamine y San Telmo Museoa, con varias colaboraciones: Mondragon Unibertsitatea, la Sociedad de Ciencias Aranzadi, la Asociación del Diseño Vasco EIDE y la empresa IBILI Menaje. El objetivo de este concurso es actualizar un objeto tradicional de la cultura vasca. Por un lado, la convocatoria fomenta la investigación sobre nuestras tradiciones, a fin de conocerlas y recuperarlas; por otro lado, impulsa la adaptación, renovación y reinterpretación de objetos tradicionales, desde la perspectiva del diseño contemporáneo. De este modo, se generan nuevos vínculos con nuestra historia, así como líneas de investigación en el ámbito del diseño, y se amplían los ámbitos de actuación. En la convocatoria del año 2024, se propuso revisar los utensilios para asar castañas, a la que se presentaron 24 proyectos

ATZOKOAK GAUR

La iniciativa De ayer y de hoy. Oficios tradicionales se centró en la chocolatería. Se trata de un programa que dio comienzo en el año 2018, y cuyo objetivo es contribuir al conocimiento y difusión de diversos oficios: técnicas y formas de trabajo, su utilidad, costumbres relacionadas con estos oficios, personas que los desarrollaron. Es una

lotura izaten du beti, eta Aste Santuko oporretarako programazio espezifiko gisa proposatzen da. 2024ko edizioaren ardatza txokolatea egiteko prozesu tradizionala izan da, Tolosako **Rafa Gorrotxategi** txokolategilearen laguntzaz.

iniciativa que siempre suele estar vinculada con la exposición permanente, y se propone como una programación específica para Semana Santa. El eje de la edición de 2024 fue el proceso tradicional de elaboración del chocolate, con la colaboración del chocolatero tolosarra **Rafa Gorrotxategi**.

HEZKUNTZA

Hezkuntzaren arloan, irakasleei, aisialdi-taldee, talde sozialei, turistei eta beste kolektibo batzuei zuzendutako bisita gidatuak egin ziren.

2024an, 10.000 bat lagunek egin zituen bisita gidatuak museoan.

Askotariko bisitariak izan zituen Museoak, baina nabarmendu daiteke ikasle-taldeak izan zirela Museora etorritako gehienak (% 78). Neurri txikiagoan bada ere, talde sozialak edo gizarteratze-ekimenetako kolektiboak, turismo-enpresak, erakundeak eta haien kabuz etorritako taldeak ere izan ziren.

Urtean zehar, hiru kanpaina egin ziren hezkuntza-buletinaren bitartez, urtarrilean, maiatzean eta irailean, hain zuzen ere, hezkuntza-eskaintza, aldi baterako erakusketak, jarduerak eta gazteentzako eskaintza ezagutzera emateko helburuz.

2024an antolatutako aldi baterako erakusketetako bik, **Garuna(k)** eta **Elkarriketa bat: Chillida eta artean: 1950-1970** erakusketek, hain zuzen ere, bisita gidatuak eta tailerdun bisitak eskaini zituzten, ikasleen parte-hartze aktiboarekin.

Aurreko urtean bezala, ikasturte honetan ere hezkuntza-proposamenaren 10 ibilbide nabarmendu ziren, irakasleei hautaketa-lana errazteko. Hezkuntza-programa horiek euskal gizartearen garapena eta historia hurbiltzen dute, bi jakintza-arloren eskutik: artea eta historia.

Museoaren hezkuntza sailak, gainera, talde sozialekin lanean jarraitu zuen, bisita gidatuko eta prestakuntzako espazioak eskainiz (SOS Arrazakeria, Elkarrekin Kooperatiba Txikia). 2024an, **Trebatzaileen trebakuntza** egin zen eragile sozialekin, talde horiei museora modu autonomoak etortzeko bidea errazteko.

Alzheimerdun gaixoentzako bisita gidatuak ere egin ziren, Gertu Kulturarekin, Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta AFAGI Alzheimerdun Gaixoen Elkartearekin lankidetzan.

Halaber, **Nahi gabeko bakardadeari** buruzko Jardunaldiak izan genituen azaroan, Gertu Kultura, Eusko Jaurlaritz eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan antolatuta. Jardunaldi horietan, hainbat eragile sozial eta kulturek hartu zuen parte, eta gai horren inguruan gaur egun bizi dugun errealitateari buruz hausnartzeko aukera egon zen. Gainera, horren hedatuta dagoen arazo hori arintzeko abian dagoen hainbat kultura-proiektu aurkeztu zen, bai eta Euskal

EDUCACIÓN

El área educativa incluyó visitas guiadas dirigidas a profesores, grupos de tiempo libre, grupos sociales, turísticos, etc.

En 2024, en torno a 10.000 personas acudieron a visitas guiadas en el museo.

El público fue muy variado, si bien se puede destacar que la mayoría de los que vinieron al museo fueron grupos escolares (78%). En menor medida, también se incluyeron los grupos sociales o colectivos de inclusión social, así como los touroperadores, instituciones o grupos particulares que vinieron por su cuenta.

A lo largo del año se realizaron tres campañas a través del boletín de educación, durante los meses de enero, mayo y septiembre, para dar a conocer la oferta educativa, las exposiciones temporales, las actividades y la oferta juvenil.

Dos de las exposiciones temporales programadas durante este 2024, **Cerebro(s)** y **Una conversación: Chillida y las artes: 1950-1970** contaron con una oferta de visitas guiadas y visitas taller con participación activa del alumnado.

Como el año anterior, en este curso se destacaron 10 itinerarios de la propuesta educativa para facilitar la selección al profesorado. Estos programas educativos acercan la historia y el desarrollo de la sociedad vasca a través de dos ámbitos de conocimiento: el arte y la historia.

Además, desde el área de educación del museo, se siguió trabajando con los grupos sociales, ofreciendo espacios de visita guiada y formación (SOS Racismo), Elkarrekin Kooperatiba Txikia. Este año se realizó la formación **Formación de formadores** con agentes sociales para facilitar el acceso autónomo de estos grupos al museo.

También se pusieron en marcha las visitas dirigidas a enfermos de Alzheimer con la colaboración de Gertu Kultura, la Universidad del País Vasco y AFAGI (Asociación de Enfermos de Alzheimer).

Asimismo, en noviembre pudimos disfrutar de las Jornadas sobre la **Soledad no deseada** organizadas en colaboración con Gertu Kultura, Gobierno Vasco y Diputación Foral de Gipuzkoa. En estas jornadas participaron diferentes agentes sociales y culturales y se pudo reflexionar sobre la realidad actual en torno a este tema. Además, se presentaron diversos proyectos culturales que se están realizando para paliar este problema social tan extendido y programas

Autonomia Erkidegoan, Katalunian eta Estatuko beste autonomia erkidego batzuetan martxan dauden programak ere.

JARDUERAK

2024an museoan izandako aldi baterako erakusketek – **Garuna(k), Chillida eta Arteak, Donostiaren oroigarri...**– San Telmon ohikoa den aniztasun eta zeharkakotasunarekin bat egin dute, hainbat gai jorratuz, hala nola artea, gizarte-gaiak, zientzia, pentsamendua edo hiri-garapena. Era berean, erakusketa-eskaintza jarduera-programa anitz eta zabal batekin aberastu da. Programa horren barruan, aipatzekoak dira egindako autore-bisitak, topaketak, hitzaldiak eta bertso-saioak. Azken horiek erakusketen zein bertso-jardunaren eremuak zabaldu eta begirada berriak ahalbidetzeko aukera interesgarri moduan nabarmendu dira.

Museoaren bildumak ezagutzera emateko ondarearen inguruko jarduerak programazioaren oinarrietako bat izan ziren. Artearen alorrean, aipatzekoa da 2024ean egonkortu zen **Nabarmendutako obra** ekimenaren barruan egindako bisita-gidatu eta hitzaldi sorta. **Museo Bikoitzarekin** lotuta ere, hitzaldi bat eta hainbat bisita gidatu egin ziren. Bestetik, lanbide tradizionalak ezagutzera ematea helburu duen **Atzokoak Gaur** ekimenaren barruan, txokolategintzaren inguruko erakusketa-programazio zabal bat eskaini zen. Azkenik, urtero bezala, Aranzadi Zientzia Elkartearen Arkeologia eta Etnografia Jardunaldietan kolaboratu zuen museoak, eta sentsibilizazio-kanpainetan ere hartu zuen parte, ohi bezala, hala nola **Ondarearen Europako Jardunaldietan**.

Sorkuntza garaikidea eta, garaikidetasunetik, ondarearen berrirakurketa sortzailea bultzatzeko proiektuak dagoeneko finkatuta dauden lan-ildoak dira, eta aurrez aipatutako sentsibilizazio- eta zabalkunde-lanaren osagarri izan ziren. Programa horietako batzuek, kontzeptuari eta formatuari dagokionez diziplina ezberdinen artean zebiltzan diskurtso berriak planteatu zituzten; harrigarriak diren ikuspegi berriak eta gizarteko hainbat sentsibilitate eta interesetara hurbiltzeko aukera eman zuten formatuak.

Nabarmentzekoak dira, besteak beste, Bitamine Faktoriarekin lankidetzan antolatutako **Hau. Euskal Herriko objektu tradizionalen diseinu-lehiaketan** proposatutako gaztainak erretzeko tresna tradizionalaren ber interpretazioa. Baita musikaren alorrean ondarearen berrirakurketa garaikidea proposatu zuten bi aurkezpen – kontzertu arrakastatsu ere: Iñar Sastre eta Jagoba Astiazaranen **Zaharrak Berri** eta Iñaki Palaciosen **Argizaiola**. Musika arloko ekarpenekin jarraituz, aipatzekoa da Musikagileak elkartearekin batera antolatutako **Musi-meet topaketa** eta kontzertua.

puestos en marcha en la Comunidad Autónoma Vasca, así como en Cataluña y otras comunidades autónomas del Estado

ACTIVIDADES

Las exposiciones temporales del Museo en 2024 – **Cerebro(s), Chillida y las Artes, Recuerdo de San Sebastián...**– siguieron la misma línea de diversidad y transversalidad habitual en San Telmo, abordando temas como el arte, los problemas sociales, la ciencia, el pensamiento o el desarrollo urbano. Asimismo, la oferta de exposiciones se enriqueció gracias a un variado y amplio programa de actividades. Dentro de este programa, destacaron las visitas de autor, encuentros, conferencias y actuaciones de bertsolaris. En el caso del bertsolarismo, destacó como una interesante oportunidad para ampliar los espacios tanto para exposiciones como para la práctica del bertsolarismo, así como para permitir nuevas miradas.

Uno de los pilares de la programación fueron las actividades relacionadas con el patrimonio para dar a conocer las colecciones del Museo. En el ámbito artístico, cabe mencionar las visitas guiadas y conferencias realizadas en el marco de la ya consolidada iniciativa **Obra Destacada**. También se llevaron a cabo diversas visitas guiadas y una conferencia relacionadas con el programa **Museo Doble**. Por otro lado, en el marco de la iniciativa **De Ayer y de Hoy**, cuyo objetivo es dar a conocer oficios tradicionales, se organizó una amplia programación de exposiciones sobre el mundo del chocolate. Por último, como cada año, el Museo volvió a colaborar en las Jornadas de Arqueología y Etnografía de la Sociedad de Ciencias Aranzadi, como es habitual, participó en campañas de sensibilización, por ejemplo, en las **Jornadas Europeas del Patrimonio**.

Los proyectos para el fomento de la creación contemporánea, así como para la relectura creativa del patrimonio desde la contemporaneidad son líneas de trabajo ya consolidadas, complementando el trabajo de sensibilización y divulgación mencionado anteriormente. Algunos de esos programas plantearon, en cuanto al concepto y el formato, nuevos discursos interdisciplinares, sorprendentes perspectivas nuevas y formatos que permiten el acercamiento a diversas sensibilidades e intereses sociales.

Es de destacar, entre otras, la reinterpretación del utensilio tradicional para asar castañas, propuesta en el **Concurso de diseño de objetos tradicionales de Euskal Herria HAU**, organizado en colaboración con Bitamine Faktoria. En el ámbito de la música, por su parte, dos conciertos-presentaciones de éxito que proponían una reinterpretación contemporánea del patrimonio: **Zaharrak Berri** de Iñar Sastre y Jagona Astiazaran, y **Argizaiola** de Iñaki Palacios. Siguiendo con el ámbito musical, es de mencionar el **Encuentro Musi-meet** y el concierto organizado conjuntamente con la asociación Musikagileak.

Museoak ikaskuntza ez formalerako eta kultura-aisialdirako baliabide gisa dituen aukerak esploratzen jarraitu zuen. Adibidez, **familia-tailerren** bitartez, sormena modu ludiko batean lantzeko programa, 2024an bereziki aberatsa izan dena, gonbidatutako profesionalen mailari eta aniztasunari esker (artistak, diseinatzaileak, arkeologoak...). Hor dugu azken urteetako **San Telmo Gau** jendetsuena ere, museora ezohiko testuinguru batean hurbiltzeko aukera eman zuena, eta hiriko kultura-eskaintzaren jarduera erakargarri moduan egonkortu dena.

Museoak bere inguru hurbileko proiektuekin duen loturari dagokionez, azken urteetan hiriko jaialdi nagusiarekin sustatutako elkarlan-formulak mantendu ziren, hala nola **Musika Hamabostaldia**, **Jazzaldia** edota **Zinemaldia**. Era berean, hiriko beste kultur-erakunde batzuekin lankidetzan jardun zuen, hala nola **Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskolarekin** eta **Francisco Escudero Kontserbatorioarekin**.

Euskararen lan-ildoan ere sektoreko eragileekin lankidetzaz-erantzabala sustatu zen, publiko espezializatu zein orokorarentzako programa zabala eskainiz. Jadanik ohikoak diren proiektuez gain, landutako edukien eta formatuen garrantziagatik nabarmendu beharrekoak dira **Etxepare Institutuarekin** elkarlanean nazioarteko irakurleentzat egindako lantegia, eta **Jakin** aldizkari berriak bere aurkezpenerako San Telmon ospatutako ekitaldi kulturala.

LIBURUTEGIA

Handitzen jarraitzen du San Telmo Museoko liburutegiko funtsa bisitatzen eta erabiltzen duen pertsona kopuruak; funts horren barruan dago argazki-liburuen bilduma. 3.500 erabiltzaile baino gehiago izan zuen 2024an liburutegiak; horrek esan nahi du % 70eko igoera izan duela aurreko urtearekiko, 2023an ere aurreko urtearekiko % 35eko igoera izan ondoren.

Liburutegiko lan teknikoak ere kontserbatzen ditugun agiri-funtsen katalogazioan zentratu zen: **Maya Aguiriano** artxiboa eta **María Paz Jiménez** artxiboa. Bakoitza bere aldetik, biak izan ziren ikertzaileen azterketen xede. Alde batetik, **María Paz Jiménez** artxibo dokumentala, artistaren argazkiz eta hark egindako erakusketa ugarien liburuxkaz eta hemerrotekako materialaz osatutako funts txiki bat, abiapuntutzat balio izan zuena **Rocío Bueno** argazkilariak bere obra berrinterpretatzen zezan, lankidetzaz-proiektu modura (*Beraiek, geu – Ellas, nosotras*); Amarica Aretoan jarri zen ikusgai proiektu hori. Bestalde, funts horren dokumentazio ugari laga zitzaion Kutxa Fundazioari, 2025ean aurkeztuko duen **Mari Paz Jiménez** artistari buruzko atzera begirako erakusketarako.

El Museo continuó explorando las posibilidades que ofrece como recurso para el aprendizaje no formal y el ocio cultural. Ejemplo de ello son los **talleres familiares**, un programa cuyo objetivo es fomentar la creatividad de una manera lúdica, y que en la edición de 2024 resultó especialmente enriquecedor, gracias al nivel y diversidad de los/las profesionales invitados/as (artistas, diseñadores/as, arqueólogos/as...). En este sentido, cabe mencionar la noche **San Telmo Gaua**, la más multitudinaria de las que se han celebrado hasta el momento, y que permitió acercarse al museo en un contexto excepcional; una iniciativa que se ha consolidado como una actividad atractiva dentro de la oferta cultural de la ciudad.

En cuanto a la estrecha relación del Museo con proyectos cercanos de su entorno, se mantuvieron las fórmulas de colaboración fomentadas con los principales festivales de la ciudad, tales como la **Quincena Musical**, **Jazzaldia** o **Zinemaldia**. El Museo también ha trabajado en colaboraciones con diversas entidades culturales de la ciudad, como son la **Escuela de Música y Danza del Ayuntamiento de San Sebastián** y el **Conservatorio Francisco Escudero**.

En el ámbito del euskera también se impulsó una amplia colaboración con agentes del sector, ofreciendo un amplio programa tanto para el público especializado como para el público en general. Además de los proyectos ya habituales, son de destacar, por la importancia de sus contenidos y formatos, el taller impartido para lectores/as internacionales junto con el **Instituto Etxepare**, y el evento cultural celebrado en San Telmo para la presentación de la recientemente renovada revista **Jakin**.

BIBLIOTECA

Continúa al alza el número de personas que visitan y utilizan el fondo de la biblioteca del Museo San Telmo, donde está incluida la colección de fotolibros. Más de 3.500 usuarios y usuarias se acercaron a lo largo del año a la biblioteca, lo que supuso un incremento del 70%, que se suma a la importante subida de un 35% del año anterior.

El trabajo técnico en la biblioteca también se centró a lo largo del año en la catalogación de distintos fondos documentales que conservamos: Archivo **Maya Aguiriano** y Archivo **María Paz Jiménez**. Por separado, ambos fueron objeto de estudio por parte de investigadores. Por un lado, el archivo documental **María Paz Jiménez**, un pequeño fondo compuesto de fotografías de la artista, así como folletos de sus numerosas exposiciones y hemeroteca, que sirvió como punto de partida para que la fotógrafa **Rocío Bueno** reinterpretase su obra a modo de proyecto colaborativo (*Ellas, nosotras - Beraiek, geu*) y éste se expusiera en la Sala Amarica. Por otro lado, numerosa documentación de este fondo fue prestada para formar parte de la exposición retrospectiva que Kutxa Fundazioa presentará en 2025 sobre la artista **María Paz Jiménez**.

Maya Agiriano Artxibo eta Liburutegi pertsonalari dagokionez, arte-kritikari, historiagile eta erakusketen komisario honen figura aztertzen ari den Bilboko Arte Ederren Museoko bekadun batek dihardu haiek analizatzen. Uste dugu ikerketa hori lagungarria izango dela 2020an hil zen Agirianoren figura hobeto ezagutzeko.

Azkenik, aipatzekoa da Feminismoa Funtza, **Crónica de los primeros años del movimiento feminista en Donostia (1976-1982)** [Donostiako Mugimendu Feministaren lehen urteen kronika (1976-1982)] liburuaren egile **Carmen Díez Mintegi, Begoña Gorospe** eta **Miren Garmendiaren** eskutik liburutegi honetara iritsi dena. Zentro honen esku utzi nahi izan zuten azkenean aipatutako liburu argitaratza eraman zituen ikerketarako balio izan zien material dokumentala.

Museoan antolatutako eta liburutegiak koordinatutako beste programazio batzuei dagokienez, nabarmentzekoa da Artista-liburuari buruzko Topaketan bederatzigarren edizioa. Berrogeita hamar bat artistak erakutsi zituzten haien jatorrizko obrak, eta liburu-formatuan oinarritutako era horretako sorkuntza artistikoaren etorkizunari buruz hitz egin zuten. Topaketarako propio, euskal emakume eskultoreen E3 kolektiboak artista-liburu kolektibo bat sortu zuen, eta obra bat hainbat pertsonaren artean egiten denean, sorkuntza-prozesua nolakoa den azaldu zuten, zer zailtasun izaten dituen, eta zein izaten diren prozesuko ikaskuntzak.

Azkenik, dokumentazio-zentroak Museoaren bildumei eta erakusketei bibliografiari eta dokumentazioari dagokionez laguntzeko eginkizunarekin jarraitzen du. Adibidez, liburutegian gordetzen diren hamar bat liburuxka jarri ziren ikusgai **Elkarrizketa bat: Chillida eta arteak, 1950-1970** eta **Donostiaren oroigarri: Galarza argazki-funtza** erakusketetan. Guztietan lan egin zen San Telmoko lantalde teknikoarekin lankidetzan, agiriak eta informazioa bilatzen

ARGITALPENAK

Museoak argitalpen ezberdinak egin ditu 2024an zehar eta beste batzuetan parte hartu du, guztiak aldi baterako erakusketekin lotuta, eta horietako batzuk Bildumak sailekoak.

Elkarrizketa bat: Chillida eta arteak / Una conversación: Chillida y las artes. 1950-1970;

Donostiaren oroigarri: Galarza Argazki Bilduma / Recuerdo de San Sebastián: Fondo fotográfico Galarza; Arte abian proiektuko Makurtu / Pliegue. Xare Álvarez eta 100 urte. Modernoa eta / edo garaikidea | 100 años. Lo moderno y / o lo contemporáneo izan dira San Telmoko argitaratutakoak, eta **Luis Martín-Santosen** eta **Isabel Azkarateren** inguruko argitalpenetan ere parte hartu du Museoak.

Respecto al Archivo y Biblioteca personal **Maya Agiriano**, están siendo analizados por una becaria del Museo de Bellas Artes de Bilbao que estudia la figura de esta crítica de arte, historiadora y comisaria de exposiciones. Confiamos que esta investigación ayude a conocer mucho mejor la figura de Aguiriano, que falleció en 2020.

Por último, mencionar el Fondo Feminismo que ha llegado a esta biblioteca de la mano de las tres autoras del libro **Crónica de los primeros años del movimiento feminista en Donostia:(1976-1982)**, **Carmen Díez Mintegi, Begoña Gorospe y Miren Garmendia**. Ellas quisieron depositar en este centro el material documental que les sirvió de apoyo a su estudio, que culminó con la publicación citada.

En cuanto a otras programaciones celebradas en el Museo y coordinadas desde la biblioteca, hay que destacar la novena edición de los Encuentros sobre el Libro de Artista. Medio centenar de artistas mostraron sus originales obras y departieron sobre el futuro de este tipo de creación artística basada en el formato libro. Para la ocasión, el colectivo de mujeres vascas escultoras E3 (Euskal Emakume Eskultoreak) creó un libro de artista colectivo y explicó cómo es el proceso de creación de una obra de arte cuando se realiza entre varias personas, sus dificultades y sus aprendizajes.

Por último, el centro de documentación continúa su tarea de apoyar bibliográfica y documentalmente las colecciones del museo, así como las exposiciones que en él se celebran. Por ejemplo, una decena de folletos conservados en la biblioteca se expusieron en **Una conversación: Chillida y las artes, 1950-1970** y en **Recuerdo de San Sebastián: Fondo fotográfico Galarza**. En todas ellas, se trabajó en colaboración con el equipo técnico de San Telmo en la búsqueda documental e informacional de apoyo.

PUBLICACIONES

El museo generó diversas publicaciones a lo largo de 2024 y participó en otros, todos ellos vinculados a exposiciones temporales, y algunos de ellos pertenecientes a la sección **Bildumak**.

Elkarrizketa bat: Chillida eta arteak / Una conversación: Chillida y las artes. 1950-1970;

Donostiaren oroigarri: Galarza Argazki Bilduma / Recuerdo de San Sebastián: Fondo fotográfico Galarza; Makurtu / Pliegue. Xare Álvarez, del proyecto Arte Abian y 100 urte. Modernoa eta / edo garaikidea | 100 años. Lo moderno y / o lo contemporáneo fueron las publicaciones del Museo San Telmo; además, participó en las publicaciones sobre **Luis Martín-Santos** e **Isabel Azkarate**.

URGULL

Urgull Mendiko monumentu-multzoak Donostiako ondarea eta historia ezagutzeko gune bikaina izaten jarraitu zuen. Mendiko ondare-elementuak hiriaren iraganaren lekuko dira. Monumentu-multzoa, gainera, leku pribilegiatuan dago, eta egungo hiriaren ikusmira bikaina eskaintzen du. **Donostiari begira** erakusketak osatu zuen eskaintza –De la Mota Gazteluko garai bateko koartelatan egin zen–, hiriaren historiari egindako errepassoarekin, modu hurbilean eta atseginean kontatuta.

Ohikoa den bezala, turistak izan ziren bisitari gehienak, % 90; horietatik % 15,76 Estatukoak, eta % 26,39 Frantziakoak.

Publikoaren ezaugarriari erreparatuz gero, oporaldietan zentratu zen eskaintza (uztaila, abuztua eta Aste Santua), astean sei egunez irekiz, eta asteburutan, berriz, maiatzetik urrira. Ordutegi horretatik kanpo, bisita-gidatuak eskaini ziren ostiraletan, baita aurrez hitzartutako bisita gidatuak ere, nahiz eta eskari oso txikia izan zuen zerbitzu horrek.

75.837 lagunek bisitatu zuen erakusketa, gehienek uztailan eta abuztuan.

I.II. Erakundearen egoera

Emaizta-kontua

2024ko Emaizta-kontuak 4.055.641,52 euroko emaitza negatiboa egotzi zuen; 2023 urtean izandako emaitza negatiboarekiko (4.108.840,47euro) % 1,29ko jaitsiera izan zuelarik.

Sarrerei dagokionez, negozio zifraren zenbateko garbiak 73.401,78 euroko gorakada izan zuen, %17,20ekoa alegia. Sarrera salmentetan aurreko ekitaldiarekiko %39,15ko igoera izan zen, 94.013,59 euroko.

Ustiapeneko sarrerak %4,51ko igoera izan zuten.

Gastuari dagokionez, ustiapeneko beste gastuek 2023arekiko 54.332,17 euroko igoera izan zuten, %1,01ekoa alegia. Igoera horren zati bat Donostia Kultura EEParen birfakturazioaren kostuaren igoerak azaltzen du. %3,62 igo zen langileen soldata igoeraren ondorioz.

Jarduerari lotutako gastuak maila berean mantendu ziren.

Amortizazio gastua %1,81ko jaitsiera izan zuen lehengo urtearekiko.

URGULL

El conjunto monumental del Monte Urgull siguió siendo un punto magnífico para conocer el patrimonio e historia de San Sebastián. Los diferentes elementos patrimoniales del monte son testigo del pasado de la ciudad y su ubicación privilegiada ofreció una excelente vista de la ciudad actual. La exposición **Mirando a San Sebastián**, situada en los antiguos cuarteles del Castillo de la Mota, completó la oferta con un repaso de la historia de la ciudad contada de un modo cercano y ameno.

Tal y como viene siendo habitual, el público fue mayoritariamente turista en un 90%; de este porcentaje, el 15,76 % fue turismo estatal y el 26,39 % procedió de Francia.

Atendiendo a las características del público en 2024 se centró la oferta en periodos vacacionales, julio, agosto y Semana Santa, con apertura de 6 días a la semana y los fines de semana de mayo a octubre. Fuera de ese horario se ofrecieron visitas guiadas los viernes y visitas guiadas concertadas previamente, si bien este servicio fue muy minoritario.

75.837 personas visitaron la exposición, la mayor parte de ellas en los meses de julio y agosto.

I.II. Situación de la Entidad

Cuenta de Resultados

La Cuenta de Resultados de 2024 arrojó un resultado negativo de 4.055.641,52 euros, lo que supone una disminución del 1,29% sobre el resultado negativo de 2023 (4.108.840,47 euros).

En lo que a los ingresos se refiere, el importe neto de la cifra de negocios se incrementó en 73.401,78 euros, un 17,20%. Las ventas de entradas subieron un 39,15% con respecto al ejercicio anterior, en 94.013,59 euros.

Los ingresos de explotación aumentaron un 4,51%.

En lo que al gasto se refiere, los otros gastos de explotación aumentaron 54.332,17 euros respecto a 2023, un 1,01%. Parte de este incremento se explica por el incremento del gasto de refacturación de la EPE Donostia Kultura. Se incrementó un 3,62 % como consecuencia de la subida salarial del personal.

Los gastos vinculados a la actividad se mantuvieron en los mismos niveles.

El gasto de amortización disminuyó un 1,81% con respecto al ejercicio precedente.

Egoeraren balantzea

Erakundearen balantzean gertatutako aldaketetako batzuk honako hauek dira:

Aktiboa

- % 0,65ko jaitsiera guztizko ibilgetuan amortizazioaren ondoriozko narriadurarengatik.
- Zordun komertzialak eta kobratzeko beste kontu batzuetan %35,83ko igoera, Bezeroetan eta diru-laguntzengatik kobratzeko saldoaren ondorioz.

Pasiboa

- Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuetan %0,66ko jaitsiera.
- Hartzekodun komertzialetan eta ordaindu beharreko beste kontu batzuetan %9,69eko igoera.
-

Balance de Situación

Estas son algunas de las variaciones habidas en el balance de la entidad:

Activo

- Disminución del 0,65 % del inmovilizado total por el deterioro de la amortización
- Aumento del 35,83% en los Deudores comerciales y otras cuentas a cobrar, como consecuencia de la subida de Clientes y de los importes pendientes de cobro por subvenciones.

Pasivo

- Disminución del 0,66 % en Subvenciones, donaciones y legados recibidos.
- Aumento del 9,69% de los Acreedores comerciales y otras cuentas a pagar.

II. Sozietatearen Egoera Orokorra: hurrengo ekitaldirako helburuak eta aurreikusitako bilakaera.

Elkartearen aldagai ekonomikoen aurreikuspenei dagokienez, 2025ko ekitaldiari begira jardura mailari eustea espero dela nabarmendu beharko genuke, arrisku edo ziurgabetasun aipagarririk ez dagoelarik.

II. Coyuntura General de la Sociedad: objetivos para el próximo ejercicio y evolución previsible.

En cuanto a la previsión de las variables económicas de sociedad, cabe reseñar que las expectativas son las del mantenimiento del nivel de actividad de cara al ejercicio 2025 y sin que existan especiales riesgos e incertidumbres dignos de mencionar.

III. Kudeaketa-txostena aurkeztu baino lehen gertatutako jazoerak.

Ez da gertakizun azpimarragarririk jaso ekitaldia itxi eta kudeaketa-txosten hau osatu bitartean.

III. Hechos posteriores hasta la formulación del Informe de gestión.

No se han producido acontecimientos significativos con posterioridad al cierre de ejercicio y previos a la formulación del informe de gestión.

IV. I+G jarduerak.

2024 ekitaldian erakundeak ez ditu ikerketa eta garapenari buruzko jarduerak egin.

IV. Actividades de I+D.

En el ejercicio 2024 la entidad no ha realizado actividades en materia de investigación y desarrollo.

V. Berezko akzioei buruzko informazioa.

Erakundeak ez ditu berezko akzioak eskuratu.

V. Información Sobre Acciones Propias.

La entidad no ha adquirido acciones propias.

VI. Sozietateak aurre egin beharreko arrisku eta kezkei buruzko informazioa.

Ez dugu erakundeak aurre egin beharreko arrisku edo kezkarik ezagutzen.

VI. Información sobre riesgos e incertidumbres a los que se enfrenta la Sociedad.


No se conocen riesgos o incertidumbres relevantes a los que se enfrenta la entidad.

Donostia/San Sebastián, 2025ko martxoaren 31an

Donostia/San Sebastián, 31 de marzo de 2025



Eneko Goia Laso
Lehendakaria/ Presidente



Jon Insausti Mastierrena
Lehendakari ordea/ Vicepresidente

14




Nekane Mendarte Azcue
Kontseilu-kidea / Vocal

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
Kontseilu-kidea / Vocal

***Oharra: arrazoi pertsonalengatikoa eusentzia/
Nota: ausencia por motivos personales***



Kerman Orbegozo Uribe
Kontseilu-kidea / Vocal



Markel Ormazabal Gaztañaga
Kontseilu-kidea / Vocal



Iñaki Gabarain Gaztelumendi
Kontseilu-kidea / Vocal



Inigo Garcia Villanueva
Kontseilu-kidea / Vocal



Borja Corominas Fisas
Kontseilu-kidea / Vocal



Arantza González García
Kontseilu-kidea / Vocal

